

2024ko AZAROAREN 28ko GRADUONDOKO BATZORDEA
COMISIÓN DE POSTGRADO DE LA UPV/EHU DEL 28 DE NOVIEMBRE DE 2024

Punto 7.1. gaia

2024ko apirilaren 25eko UPV/EHUko Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako
Arautegia garatzeko arau osagarriak (O)
Normas complementarias al Reglamento de Gestión de las Enseñanzas Oficiales de
Doctorado de la UPV/EHU de 25 de abril de 2024 (A)

ERABAKI PROPOSAMENA, 2024ko AZAROAREN 28koa, UPV/EHUko GRADUONDOKO BATZORDEARENA, ARAU OSAGARRI BAT ONARTZEKO, DOKTOREGO IKASKETA OFIZIALEN GESTIORAKO ARAUTEGIKO BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA ETA LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA GARATZEN DITUENA

Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak proposamen bat aurkeztu du arau osagarri bat onartzeko, Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegia (2024ko ekainaren 7ko EHAA) garatzeari begira, zehazki bigarren xedapen gehigarria eta lehenengo xedapen iragankorra, "Industria doktorea" aipamena lortzeari buruzkoak.

2019ko uztailaren 12an Gobernu Kontseiluak onartutako Doktorego Ikasketen Gestiorako Arautegiak dio, batetik, "Industria doktorea" aipamena izango duela doktoregaiak bere tesiarekin lotura zuzena daukan industriako ikerketa proiektu batean edo ikerketa esperimental batean parte hartzen duenean, eta, bestetik, doktorego programako batzorde akademikoak egiaztatu eta onartu behar duela doktoregaiak gutxienez urtebete lehenago aurkeztutako memoria. Azken urteotan, baina, urtebete lehenago memoria aurkeztu beharra eragozpena izan da gainontzeko baldintzak beteta zituzten doktoregaiak aipamena lortzeko. Graduondoko Batzordea jabetuta zegoen horretaz, bai eta Doktorego Eskola eta Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza ere, eta ados zeuden baldintza hori kentzeaz. Horrela, bada, 2024ko Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegian ezabatu egin zen baldintza hori ikasle berrientzat, eta aurreko arautegiaren babesean titulua lortua zutenentzat honako aurreikuspen hau ezarri zen:

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. - Doktore titulua berriro ematea, "Industria doktorea" aipamena txertatuta

Doktore batek Doktorego Ikasketen Gestiorako Arautegiaren arabera lortu badu UPV/EHUko doktore titulua (Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12an onartutakoa), eta arautegi honetan "Industria doktorea" aipamena eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen baditu, titulu berri bat eskatu ahal izango du, "Industria doktorea" aipamena duena. Egoera horretan daudenek urtebeteko epea izango dute eskaria egiteko, arautegi hau indarrean jartzen den unetik zenbatzen hasita. Horretarako, titulua eskatzeko ezarritako prezioa ordaindu beharko dute.

Asmoa zen aipamena jasota duen titulua lortzeko aukera ematea memoria urtebete lehenago onartua izateko baldintza bete ez arren industria tesirako gainontzeko baldintzak beteta zituztenei. Baina arautegia duela gutxi indarrean sartu ondoren, ohartu gara zenbait zailtasun daudela arau hori ezartzeko, eta, horretaz gain, ikusi dugu ez zaiela trataera bera eman egoera guztiei.

Aipatutako xedapena titulua aurreko arautegiaren babesean eskuratu dutenei baino ezin zaie ezarri, eta, beraz, ikasketak arautegi horren babesean hasi eta titulua lortu gabe izanez gero, ez dago aukerarik xedapena ezartzeko. Horretaz gain, bada kontuan izan beharreko

beste eragozpen bat; izan ere, xedapena hitzez hitz interpretatuz gero, titulua dutenei hitzarmena sinatuta izatea eskatzen diegu, eta 2019ko arautegiaren arabera hori zenbait kasutan baino ez zen beharrezkoa. Beraz, ezin izango lukete aipamena lortu, hitzarmena ikaslea erakundean hasi aurretik egon beharko bailitzateke sinatuta.

Hortaz, proposamena da bigarren xedapen gehigarria aldatzea honako hau erantsita: (...) *lankidetza hitzarmena sinatuta izatea, baldin eta tesiarekin hastean araudiaren arabera beharrezkoa bazen (...)*; lehenengo xedapen iragankorrean hau gehitzea: *"Industria doktorea" aipamena lortzeko, doktoregaiak tesia gordailuan utzi arteko epea izango du parte hartzen ari den proiektuak tesiarekin lotura zuzena daukala egiaztatzeko memoria aurkeztu eta memoria hori onartua izateko.*

Azkenik, Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegian (2024ko ekainaren 7ko EHAA) zehazten denez, *Graduondoko Batzordeari dagokio arautegi hau garatuko duten arau osagarriak ezartzea.*

Hori guztia kontuan hartuta, organo honek honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- ONARTZEA bigarren xedapen gehigarria garatzeko arau osagarria, azpimarratutako testua txertatuz, honelaxe:

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. - Doktore titulua berriro ematea, "Industria doktorea" aipamena txertatuta.

Doktore batek Doktorego Ikasketen Gestiorako Arautegiaren arabera lortu badu UPV/EHUko doktore titulua (Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12an onartutakoa), eta arautegi honetan "Industria doktorea" aipamena eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen baditu, titulu berri bat eskatu ahal izango du, "Industria doktorea" aipamena duena. Egoera horretan daudenek urtebeteko epea izango dute eskaria egiteko, arautegi hau indarrean jartzen den unetik zenbatzen hasita. Horretarako, batetik, lankidetza hitzarmena sinatuta izan beharko dute, baldin eta tesia hastean araudiaren arabera beharrezkoa bazen, eta, bestetik, titulua eskatzeko ezarritako prezioa ordaindu beharko dute.

Bigarrena.- ONARTZEA xedapen iragankorra garatzeko arau osagarria, azpimarratutako testua txertatuz, honelaxe:

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA. - Arautegia indarrean jartzen den unean ikasketak hasita dituzten doktoregaiak.
Arautegi hau indarrean jartzen den unean doktorego ikasketak aurreko arautegien arabera hasiak dituzten doktoregaien kasuan, ikasketak hasi zituzten uneko xedapenen arabera arautuko dira doktoregoa eta tituluaren emakida. "Industria doktorea" aipamena lortzeko, doktoregaiak tesia gordailuan utzi arteko epea izango du parte hartzen ari den proiektuak tesiarekin lotura zuzena daukala egiaztatzen duen memoria aurkezteko eta memoria hori onartua izateko.
Edonola ere, 2024/2025 ikasturtetik aurrera, arautegi honetan xedatutakoaren arabera arautuko dira doktorego tesiaren defentsa, ebaluazioa eta epaimahaia, baita sari bereziak ere.

Hirugarrena.- Erabaki honen **BERRI EMATEA** UPV/EHUko Doktorego Eskolari eta doktorego programetako batzorde akademikoei, kontuan izanda onartutako arau osagarria

2024/2025 ikasturtean, hau da, ikasturte honetan ezarriko dela.

Leioa, 2024ko azaroaren 28a.

Batzordeko burua

Montse Maritxalar Anglada
Graduondokoaren eta Etengabeko
Prestakuntzaren arloko errektoreordea

Idazkaria

Amaia Landera López
Graduondoko Ikasketen Zerbitzuko burua